

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

IBARRAKO UDALA

Ikuskizun publikoak eta aisialdiko jarduerak arautuko dituen ordenantza. Behin betiko onespena.

IBARRAKO UDALA

Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2001eko uztailaren 26an udalbatzarrak egindako bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez Ikuskizun Publikoei eta Dibertimenduzko jardueri Buruzko Udal ordenantza onetsi zen. Jarraian ordenantzaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2001eko irailaren 18a.—Iñaki Urkizar Zubelzu, Alkatea. (9783)

**IKUSKIZUN PUBLIKOEI ETA
DIBERTIMENDUZKO JARDUEREI BURUZKO
UDAL ORDENANTZA**

1. artikulua. Helburua eta aplikazio-eremua.

Ordenantza honen helburua Ibarako udalerrirako azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, ikuskizun publikoei eta dibertimenduzko jardueri buruzkoak, xedatzen duena osatzea da.

Zehazkiago, herriko festetan, kultura- eta kirol-ekitaldietan edo salgaiek izaera hori dutenean erabiltzen diren behin-behineko egiturak, egitura eramangarriak edo desmuntagarriak jarri eta ustiatzeko baimenak arautu nahi dira.

Beste mota batzuei kalterik egin gabe, hauek bereiziko dira:

- a) Herriko jaietan saltzaile ibiltariak jartzen dituzten salmenta-postuak.
- b) Herriko jaietan ostalaritza-gremiokoek jartzen dituzten kanpo aldeko salmahaiak.
- c) Bertako produktuen eta artisautza-produktuen salmenta-postuak.
- d) Azokak, erakusketak, jaietako jantoki kolektiboak edo kultura gertaerak.
- e) Txosnak.
- f) Jaietako barrakak eta zirkoak.

2. artikulua. Eskaerak aurkeztea.

Baimen-eskaerak Ibarako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, ahal bada baimena

izan nahi den eguna baino hilabete lehenago eta, edonola ere, gutxienez, 15 egun lehenago. Eskaeretan zehaztapen hauek agertu behar dira. Jardueraren arabera beste alderdi batzuk argitzeko ere eska daitezke:

—Eskaera egiten duenaren izena eta bi abizenak.

—Sozietate-izena edo ordezkatzeko duen taldearen izena.

—Jakinarazpena jasotzeko helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia.

—NANaren, NIFaren, pasaportearen edo bizitzeko baimenaren zenbakia.

—Eskaera egiteko duen arrazoia.

—Zein leku eskatzen den eta espazio publikotik zenbat m² okupatu behar duten instalazioek.

—Baimena zenbat denborarako eskatzen den.

3. artikulua.Baimena.

Udal honek emandako baimena eduki behar da ikuskizun publikoak eta dibertimenduzko jarduerak egiteko, bai eta instalazioak edo behin-behineko egiturak jartzeko ere. Baimen horretan alderdi hauek azaldu behar dira:

—Instalazioaren jabea zein den.

—Antolatzailea edo arduraduna zein den.

—Lekua.

—Zein jarduerarako eman den baimena, eta bete behar diren baldintzak zein diren, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

4. artikulua.Aseguru-poliza.

Garrantzi txikiko egitura eramangarrietarako izan ezik, zeinak baimenean hala erabaki bada salbuetsita baitaude baldintza hau betetzetik, antolatzaileak edo eskaera egin duenak aseguru-poliza eginda duela egiazatu behar du. Aseguru-poliza horrek titularrek duten erantzukizun zibila estali behar du, hara doazenei instalazioen baldintza objektiboetatik edo beren zerbitzupeko langileen jardueratik sor dakizkiekeen kalteak estaltzeko. Horretaz gain, ezar daitezkeen arauak aurrez ikusten dituzten betebeharrak ere bete behar dituzte. Aseguru horren estaldura azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, ikuskizun publikoei eta dibertimenduzko jarduerari buruzkoak, ezartzen duena izan behar da.

Eskatzailearen jarduera arrunterako aseguru-poliza hitzartuta dagoenean, aseguru-poliza horrek baimenaren helburu den jarduera osagarriak izan dezakeen arriskua ere estaltzen duela ziurtatu behar du.

5. artikulua.Zerga-ordainarazpena.

Diru-irabazi asmoak dituzten enpresek edo erakundeek egindako jardueren edo salmenten kasuan, bide publikoa okupatzeagatik ezarri zaizkien kopuruak ordaindu behar dituzte.

6. artikulua.Lan eta zerga-araudia eta gizarte segurantzaren araudia betetzea.

Diru-irabazi asmoa duten enpresek eta erakundeek ondokoa egiaztatu behar dute:

—Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta hartuta daudela eta zerga ordaindu dutela.

—Eskatzaileak eta eskaera egin den jardueran lan egin behar duten langileek Gizarte Segurantzaren, dagokien erregimenean alta hartuta dudela adierazi behar dute.

—Saltzaile atzerritarrek lanerako eta bizitzeko baimena dutela ere egiaztatu behar dute.

7. artikulua. Baimenaren ezaugarriak eta bete behar diren baldintzak.

1. Baimena pertsonala eta besterenezina da.

2. Baimen bakarra eska daiteke pertsonako, taldeko edo elkarteko.

3. Salmenta-postuak udalak esleitutako lekuan baino ezin dira jarri.

4. Instalazioa ustiatu behar duten langileek instalazioa esleitu zaion taldearen edo enpresaren kide izan behar dute.

5. Horietaz gain, instalazio-motaren arabera, ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak ere bete behar dira.

8. artikulua. Instalazioen segurtasuna eta higiena.

Instalazioek jendeari eskaini behar dizkien segurtasun, higiene eta erosotasun baldintzak txostenean egiaztatu behar dira teknikari eskudunak egindako ziurtagiriaren bidez (ingeniari edo goi-mailako arkitektoa edo arkitekto teknikoa), bereziki ondoko hauez:

1. Egituraren sendotasunaz edo instalazioaren funtzionamenduaz.

2. Instalazio elektrikoaren kasuan: Eskumena duen udal teknikariak egingo du edo udalak izendatzen duen teknikariak, bestela. Tresna elektrikoaren konexioak eskatzaileak egin behar dituzte, eta hori baimendutako argiketariak egin behar du. Egindakoak egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu behar dira, betiere, 1996ko martxoaren 27ko 4.053/1996 Aginduak ezarritakoa betez, zeina 1996ko abuzturaren 28ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian)* argitaratu baitzen, eta Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindua baita. Muntatze elektriko berezia egin behar bada (bai hartunetik hainbat instalaziotara bai horien barne instalazioa) elektrizitate-hornidura kontratatu duenari baimendutako argiketariak sinatutako instalazio-orria eskatuko zaio. Behar bezala bideratu behar da Eusko Jaurlaritzaren Industria Lurralde Ordezkaritzan, eta, betiere, lehen aipatutako aginduak ezarritakoa bete behar du.

3. Osasun- eta higiene-baldintzak:

a) Elikagaiak manipulatu dituzten instalazioak:

—Harraska bana izan behar dute, baita edateko moduko ura, xaboia eta behin erabiltzeko eskuoihalak ere.

—Behar adinako lekua duten hozkailuak izan behar dituzte, eta elikagaiak gordetzeko baino ezin dira erabili. Maila hauetan eduki behar dira: Hozkailuak 0-4 gradu artean, eta izozkailuak, gutxienez, -18 gradutan.

—Elikagaiak manipulatu dituzten langileek jantzi egokiak eta garbiak izan behar dituzte. Lanean

hasi baino lehen eta behar den guztietan eskuak garbitu behar dituzte.

—Edarien nahasketak egunero prestatu behar dira.

b)Elikagaiak manipulatzeko ez dituzten instalazioak:

—Manipulazio gutxi duten elikagaiak eta osasun-arrisku txikia dutenak saltzen utziko da, adibidez, ogitarteko hotzak, barrutik bete gabe dauden opil eta gozoak, ontziratutako elikagaiak, eta edariak.

Instalazioak ireki aurretik ikuskatze tekniko eta osasun-ikuskatzea egingo dute udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak izendatzen dituzten teknikariek.

9. artikulua.Instalazioetan edo behin-behineko egituretan, egitura eramangarrietan edo desmontagarrietan sal daitezkeen gaiak eta bete behar dituzten baldintzak.

1.Sal daitezkeen gaiak jarduerarako aurrez ikusi den instalazioen funtzioaren arabera zehaztu dira.

2.Erabat debekaturik dago gal daitezkeen produktuak merkaturatzea, behar bezala kontserba daitezkeela bermatzen duten gutxieneko baldintza teknikorik eta osasun-baldintzarik ez badute.

3.Ezin da inolako elikagairik lurraren gainean jarri, eta jendaurrean daudenak behar bezala babestuta egon behar dira.

4.Txosnetan eta tabernen kanpoaldeko salmahaietan eta gainerako behin behineko instalazioetan erabiltzen diren edalontziak eta abar behin erabiltzekoak eta biodegradagarriak izan behar dira.

5.Erabat debekaturik dago edari alkoholikoa eta tabakoa 18 urtez beherakoei saltzea eta eskuratzea, betiere, azaroaren 11ko 15/1988 Eusko Legebiltzarraren Legeak, drogazaletasunaren arloan prebentziorako, laguntzarako eta berriro gizarteratzeko legeak ezartzen duenari jarraiki.

10. artikulua.Aldez aurretik ikuskatzea.

Jarduerak eta instalazioak abian jarri aurretik, jabeek eta arduradunek, udal-teknikariek –edo udalak izendatutako langileek– egingo dituzten ikuskatze eta kontrol teknikoak gainditu behar dituzte. Teknikari horiek alor bakoitzean eskumena dutenak izango dira.

Baldintza horiek betetzen ez badituzte, 1. artikuluan zehaztu ditugun jarduerak eta instalazioak ezingo dira abian jarri, hau da, festa-esparruko instalazioen segurtasun-, irmotasun-, osasun- eta higiene-baldintzak eta itxura txukuna bermatu behar dira eta instalazio eta jarduera horietatik gertu bizi direnek atsedean hartzeko duten eskubidea ere bermatu behar da.

11. artikulua.Osasun-ikuskatzea.

Eskualdeko Elikagaien Kontrolerako Zerbitzuak eta Osasun Publikoko Albaitarien Zerbitzuak osasunaren gaineko arautegia betetzen den egiaztatu ahal dute, bai ofizioz bai interesdunak hala eskatuta. Pertsona fisiko nahiz juridikoak behartuta daude ondoren aipatutako direnietara, eskumena duten erakundeek edo ikuskatzaileek hala eskatuz gero:

1.Instalazioen, produktuen edo zerbitzuen gaineko argibide oro ematera, bai eta ikuskatzaileari bere lana egiten uztera ere.

2.Ikuskatzen ari direnarekin zerikusia duten agirien fotokopiak ematera.

3.Ikuskatze-bisita egin dadin erraztasunak ematera, eta oztopoak ez jartzera.

4.Hala behar izanez gero, laginak hartzen uztera.

12. artikulua. Herriko jaietan kalez kale saltzen ibiltzen direnen postuak.

1.Baimenak, eskatzen den jai-egunerako edo egunetarako balio du soilik, eta jai-ekitaldi bakoitzerako eskaera bana aurkeztu behar da.

2.Udalak emango du baimena, eta postu mota desberdinen arteko banaketa egiteko irizpide homogeneoa erabiliko du. Mota bereko postuetarako eskaera egin den data hartuko da kontuan. Eskatzaile bakoitzari zein leku esleitu zaion udaletxean jakinaraziko da instalazioa egin behar den unean, eta lekua esleitu zaionak ezin du bere instalazioa jarri zein leku tokatu zaion jakin arte.

3.Postuek neurri estandarra izan behar dute, hau da, 3,5 metro. Zenbaitetan neurri bikoitzeko postuak edo beste neurri batekoak jartzeko baimena eman daiteke, eskaeran hala zehaztu bada.

13. artikulua. Ostalaritza-establezimenduen kanpo aldeko salmahaiak

1.Jaia egin behar den inguruko establezimenduek eskatu ahal dute baimena. Horretarako establezimendu horiek dagozkien arautegiak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, eta udalarekin dituzten zerga-betebeharretan egunean daudela egiaztatu behar dute.

2.Salmahai horiek bete behar duten lekua pribatua balitz, leku horren jabeak emandako baimena aurkeztu behar da.

3.Instalazio horietan erabiltzen diren edalontziak erabilera bakarrekoak izan behar dira eta biodegradagarriak.

14. artikulua. Artisau-produktuak saltzen dituzten postuak.

1.Artisau-produktuak saltzeko gune bat egokituko da.

2.Zenbat baimen eman udalak zehazten duen gunean dagoen lekuaren arabera erabakiko da.

15. artikulua. Azokak, erakusketak eta antzekoak.

Izaera orokorreko baldintzak betetzeaz gain, eskaera egiten dutenean zer-nolako postuak jarri behar dituzten azaldu behar dute, zer-nolako produktuak jarri behar dituzten erakusgai edo merkaturatu behar dituzten ere azaldu behar dute, bai eta jarduera egoki gara dadin lurzoru publikotik zenbat metro koadro behar dituzten ere.

16. artikulua. Txosnak.

1.Diru-irabazirik gabeko kultura-izaera, kirol-izaera edo gizarte-izaera duten eta beren jarduera Ibarran garatzen duten erakundeek, taldeek edo elkarteek eskuratu ahal dute txosnak jartzeko baimena. Noizean behin baldintza horiek betetzen ez dituzten erakundeek egindako eskaerak onar daitezke, betiere, gizarte-izaerako egitekoa dutela onartzen bada.

2.Baimena eskatzen duten taldeek edo elkarteek urteko jardueren egitasmoa egina izan behar dute, baita horren aurrekontua ere.

3.Jar daitezkeen txosnen kopurua lekuaren arabera eta txosnen neurriaren arabera zehaztuko da. Lekurik ez dagoelako txosna-kopurua mugatzen baldin bada, eskaera egin dutenen artean urte osoan banaketa homogeneoa egiteko erabakia hartu behar da, udalak txosnak jartzeko baimena zein jaitan

ematea erabakitzen duenaren arabera. Txosnak dauden eremuan aniztasuna bermatzeko, txosnen kolektiboa osatzen duten alor desberdinetako ordezkariak –kulturala, kirolakoa, gizarte mailakoa– egokia izan dadin saiatu behar da.

4. Txosnak zein lekutan jarriko diren udalak erabakiko du zozketa bidez.

5. Eskaerak txosnak jartzeko lekuak baino gehiago baldin badira, udalak zozketa egingo du jasotako eskaera guztien artean.

6. Baldintza teknikoak, segurtasun, higiene eta osasun-baldintzak arautegi honetan aipatutakoak dira, eta, bereziki, 9., 10., 11., 18., 20. eta 21. artikuluetan aipatutakoak.

7. Txosnak udalak esandako garaian jarri behar dira, eta kendu, berriz, jaiak bukatu eta, gehienez ere, handik bi egunera. Emakidadunek txosnak egon diren eremua garbi utzi behar dute, eta egindako jarduerarekin zerikusia duen material guztia kendu behar dute.

8. Txosna jartzeko baimena duten taldeek edo elkarteek 25.000 pezetako fidantza jarri behar dute udalak txosna jartzeko baimena eman aurretik. Fidantza jaiak bukatzen direnean itzuliko zaie, baldin eta txosnek bete duten lekua garbi eta txukun geratu bada, bestela, udalak fidantza ez itzultzeko eskubidea du.

17. artikulua. Jaietako barrakak eta zirkoak.

Izaera orokorreko baldintzak betetzeaz gain, eskaera egiten dutenean proposatzen dituzten barrak deskribapena egin behar dute, eta zer-nolako neurriak dituzten adierazi, bai eta horiek funtziona dezaten zenbat espazio publiko behar duten ere. Karabana-etxebizitzak hiri-espazioetan jartzen ez da utziko eta udalak esandako lekuan jarri behar dira.

Jaietako barrakak eta zirkoak, izaera orokorreko arautegiak ezartzen duena bete behar dute, eta, horretaz gain, instalazioaren proiektua aurkeztu behar dute; proiektua eskumena duen teknikariak sinatu behar du, eta dagokion elkargo ofizialaren oniritzia behar du.

18. artikulua. Instalazioak irekitzeko eta ixteko ordutegia.

Irekitzeko eta ixteko orduak kasu bakoitzaren arabera zehaztuko dira, betiere, instalazio mota zein den kontuan hartuta; erreferentzia gisara, jarduera zein sektorearen barnean dagoen ikusi eta sektore horri dagozkion arauak hartuko dira, bai eta beste jarduera edo jai batzuekin batera den ala ez eta abar.

19. artikulua. Zaintze eta segurtasun-zerbitzuak.

Zaintze eta segurtasun-zerbitzuak egon daitezen eskatuko da jende andana bil daitekeela ikusten bada. Salbuespen berezirik izan ezean, instalazioak zaintzeagatiko eta instalazioen segurtasuna bermatzeagatiko gastuak eskatzaileek ordaindu behar dituzte.

20. artikulua. Bide publikoa garbitzea eta zaintzea.

1. Zaborrak eta hondakinak ontzietan edo edukiontzietan utzi behar dira.

2. Ostalaritza gremioko kanpo aldeko salmahaietan, txosnetan eta hondakinak etengabe sortzen diren leku haietan guztietan (plastikozko edalontziak, bilgarriak,) zaborrak jasotzeko ontziak jarri behar dituzte instalazioaren bi aldeetan, eta noizean behin hustu egin behar dituzte inguru horretako bide

publikoa garbi egon dadin.

3. Garbiketa-zerbitzuek eta zaborrak biltzeko zerbitzuek egiten duten lanaz gain, antolatzaileak feria-esparrua behar bezain txukun egon dadin arduratu behar dira eta higiene-baldintzak bete behar dituzte. Egunero, bukatutakoan norberak bere instalazioaren barneko aldea eta ingurua garbitu behar ditu.

4. Eskera egiten dutenek bide publikoa eta hiri-altzariak zaindu behar dituzte, eta beren jarduerak kalteak eragiten badituzte, kalte horiek sortutako gastuak ordaindu behar dituzte.

5. Antolatzaileek ezin dituzte beren ibilgailuak jai-esparruan aparkatu, eta esaten zaien lekuan utzi behar dituzte.

21. artikulua. Megafonoak.

Udalak eman behar du baimena arautegi honen xede diren instalazioetan megafono-sistemen edo musika-tresnen instalazioak jartzeko. Esparru bakar batean hainbat instalazio daudenean guztientzako ekipo bakarra egon dadin eskatuko da, eta musika edo megafonoen bolumena mugatzeko tresna bat jar daiteke, ezarritako dezibelio maila gaindi ez dezan. Musikak, gehienbat, euskaraz izan behar du.

22. artikulua. Zehatzeko araubidea.

Zehatzeko prozedura azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 127. artikuluan eta ondokoetan ezartzen duena izango da, bai eta lege hori garatzen duten arauak ezartzen dutena ere, eta 4/1995 Legeak, ikuskizun publikoen eta dibertimenduzko jardueren legeak, ezartzen duenari jarraiki bideratuko da.

23. artikulua. Arau-haustea.

Lehen aipatutako 4/1995 Legeak, ikuskizun publikoen eta dibertimenduzko jardueren legeak zehazten dituen arau-hauste oso larri, larri eta arinez gain, beste hauek ere ezarri dira:

Hutsegite larriak dira:

—Emakida osotasunean edo zati batean eskuz aldatzea edo ematea.

—Udal-kontrolei edota ikuskatzeei uko egitea edo horretan zailtasunak jartzea.

—Ondasun publikoetan kalte larriak eragitea.

—Osasun-arautegia ez betetzea edo baimenduta ez dauden produktuak saltzea, pertsonak edo osasun publikoa arriskuan jartzen dituztela hautematen bada.

Hutsegite arinak dira:

—Megafonoei buruzko arautegia ez betetzea edo zarata gehiegi ateratzea.

—Instalazioak jartzeko esleitu zaizkien lekuak ez errespetatzea.

—Instalazioa aurrez ez ikusitako edo baimendutako jardueretarako erabiltzea.

—Instalazioa baimendutako ordutegiaz kanpo zabaltzea, bizilagunentzako kaltegarri edo ezeroso gertatzen bada.

24. artikulua. Zehapenak.

Zehapenak kategoria bakoitzerako 4/1995 Legeak, ikuskizun publikoei eta dibertimenduzko jardueri buruzkoak, ezartzen dituenak dira. Zehapenak jartzeko eskumena udalak baldin badu, dagokionak jarriko ditu Kultura batzordeak proposamena egin eta gero.